

ALEGIAKO **ORRIE**



2022KO APIRILA • ARGITARATZAILEA: ALEGIAKO UDALA • DISEINUA ETA INPRIMAKETA: GARAIKO



«PAUSOZ PAUSO
BIDEA EGITEN»

2

ALEGIA APP.
HERRITARRÉN
ESKURA

3

%82KO
EUSKARAREN
ERABILERA
KALEAN

4

KULTUR
ESKAITZA
AZALBERRITUA

6

DATU
ETA
EKINTZEKIN
KONTZIEN-
TZIAZIOA
HELBURU

7

TXINTXARRIAK
MARTXANEK
AURRERA
DARRAI

8

ASTE MOREA
MARTXOAK
BAREN BUELTAN

ALEGIA app, herritarren eskura

Herritarren eta Udalaren arteko harremana errazteko eta azkartzeko gailu mugikorretarako aplikazioa jada deskargatu daiteke

Martxoaren erdian ikusi zuen argia ALEGIA APP aplikazioak. Herritarren eta Udalaren arteko komunikazioa azkartzea eta erraztea du helburu Udalak eta ACV Multimedia enpresak elkarlanean garatu duten tresnak. Android eta IOS sistema eragileak erabiltzen dituzten gailuetarako diseinatuta dago eta oraindik deskargatu ez duten herritarrek Google Play edo APP Storen sartu eta 'Alegia APP' bilaketa eginda jaitxi dezakete.

Udaleko eta ACV Multimediako ordezkariak martxoaren 17an egin zuten ALEGIA APPen aurkezpen ekitaldia. Arantxa Irazusta alkateak, hemendik aurrera herritarren eta administrazioaren arteko harremanak azkarra goak eta arinagoak izango direla adierazi zuen, "bat-batekotasuna" azpimarratzearekin batera. Aplikazioaren bitartez Udalak edozein jakinarazpen unean bertan bidali ahal izango die herritarrei eta aldi berean, herritarrek ere edozein unetan Udalarekin harremanetan jarri ahal izango dute mugikorretik bertatik, aplikazioa erabiliz.

Horrez gain, herriko albisteen berri jaso ahal izango da, Alegian egiten diren ekitaldien agenda kontsultatzeko aukera ere eskaintzen da, garraio publikoari, guardiako farmaziei eta herriko leku interesgarrien inguruko informazioa ematen da, Alegiako talde eta eragileen zerrenda ere kontsultatu daiteke eta izapide administrati-



boak egiteko aukera ere badu aplikazioak. Josean Telleria ACV Multimediako garapen zuzendariak azaldu zuenez, "izapide administratiboak egin ahal izateko aurrez eman beharreko urratsak ere azalduta daude aplikazioan eta behin hori eginda, alegiarrek modu oso erosoan egin ahal izango dituzte izapide horiek gailu mugikorren bidez".

Irazustak tresna hau egin ahal izateko bere aletxoak jarri duten guztiei eskerrak eman nahi izan zizkien



ekitaldian eta baita, aplikazioaren promozio 'roll-up'etarako argazkietan ateratzeko prestutasuna izan duten herritarrei ere. Adin guztietako alegiarrak aplikazioa jaistera animatu nahi izan zituen, Udal webgunean sartzen ibili beharrik gabe erosotasuna irabazten delako eta herrian gertatzen den oro eskura izan genezakeelako.

Aplikazioa deskargatzeko, gailu mugikorretatik Udal webgunean sartu Alegia APP atalean sartzea da biderik zuzenenetako bat.

%82ko euskararen erabilera Alegiako kaleetan




UEMAk egindako neurketa baten arabera, lau puntu igo da euskararen erabilera udalerrian 2017tik

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAK, gure herrietan euskararen erabilera duen argazkia egin du. Alegiari dagokionean, %82koa da euskararen erabilera herriko kaleetan. Gaztelaniaren erabilera %16,1ekoa eta beste hizkuntza batean %1,9a somatu da. 2017an egindako azken neurkete-kin alderatuta, euskararen erabilera lau puntu egin du gora. Gaztelaniaren erabilera neurri berean jaitsi da eta beste hizkuntzena mantendu egin da.

UEMAk egiten dituen ikerketetan sari gertatzen den moduan, Alegian ere emakumeek gehixeago erabiltzen dute euskara. Zehatzak izateko, gizon-ekoek baino hiru puntu gehiago. Gaztelaniarekin aldir, kontrakoa gertatzen da. Gizonezkoek emakumeek baino gehiago erabiltzen dute.

Adin talde guztietan euskara da hizkuntza nagusia baina talde batetik bestera badira hainbat nabardura. 2 eta 14 urte bitarteko haurren adin taldean erabiltzen da euskara gehien, %95,3. 15 eta 24 urte bitarteko gazteen artean %92,2koa da eta 25 eta 39 urte bitarteko gazte-helduen artean %88,2koa. Adinean gora egin ahala, jaitsi egiten da euskararen erabilera. 40 eta 64 urte bitartekoetan %74,1eko erabilera du eta 65 urtetik gorakoetan %62,2koa. Azken bi multzo horietan du gaztelaniak erabilera handiena; %20tik gorakoa.

Neurketa egiteko urteetan kontrastaturiko ikerketa eredu bat erabili du UEMAK. Neurtzaileek herriko kaleetan egin dute behaketa eta aplikazio batean jaso dute zein hizkuntzatan ari zen jendea, hiltunen sexua eta adin taldea. Datuak fidagarriak izan daitezzen dezenteko lagina hartu behar da. Alegian 1338 hiltunen kaleko 417 elkarrizketa jaso dira hainbat egun eta ordutegi ezberdinetan.



Kultur eskaintza azalberritua

Neguko eskaintza oparoaren ostean udaberrikoak hartuko dio lekua kultur jarduerari jaiak iritsi bitartean

Gabonen ostean ekin zitzaion neguko kultur egitarauari. Aste santuko oporren atarian, Korrika 22 Alegiatik pasa zen egunean amaitu zen eskaintza hori eta oporretako egunak arnas apur bat hartzeko baliatu ostean, hilabetea amaitu aurretik ekingo zaio udaberrikoari.



Denetik izan du neguko egitarauak. Intxurre elkartearen 50. urteurreneko dokumentalaren proiektioarekin hasi zen eta hainbat ipuin kontaketa, Olatz Salvadorren kontzertua, Kimua dantza kolektiboaren 'Generoa' ikuskizuna, Ekain pailazoaren emanaldia, Sutarri dantza taldearen emanaldi ezberdinak eta beste hainbat osagai izan ditu duela aste gutxi amaitu den egitarauak.



Pandemiaren gogorrena atzean utzita, edukieren inguruko eta kultur ekitaldiak antolatzeko bestelako mugak alboratu eta pixkanaka normaltasunera



buelatzeko trantsizio garaia izan da negukoa. Ekitaldiak antolatzeko ziurgabetasun egoera hori ahaztu eta nahi den lekuan nahi beste jendekin ekitaldiak egitera itzultzen ari garela dirudien honetan, eskaintza kulturala sendotzea eta egonkortzea da Udalaren itzaropena.

Neguari lekukoa hartuta dator udaberria. Apirilaren 29an hasi eta ekainaren 16ra bitartean hamar ekintza ezberdin eskainiko dira. Alaitz Artola amezketa-rraren kontzertuarekin zabalduko den egitarauak irakurle taldearen saioarekin izango du amaiera eta jarraian duzue egitaraua osorik kontsultatzeko aukera. Hainbat ekintzen inguruko xehetasunak ekitaldi horiek hurbildu ahala zabalduko ditu Udalak bere ohi-ko kanalen bidez.

Apirilak 29, ostirala

Kontzertua: Alaitz Artola.
22:00etan zinean.



Maiatzak 3, asteartea

Hitzaldia: 'Etorkizuneko basogintza. Zer egin Alegiako herri lur eta basoekin?'
Errez kooperatiba.
18:30ean kultur etxean.



Maiatzak 10, asteartea

Hitzaldia: Sendabelarre dakitena'.
Garbiñe Larrearen liburu aurkezpena
18:30ean kultur etxean.



Maiatzak 22, igandea

Mendi irteera: Languerrera.

Txoribox: habia etxeak egiten ikasteko tailerra. 11:00etatik 13:00era.

**Maiatzak 23-Ekainak 22 (asteleheneretan eta asteazkenetan)**

Sendabelarren tailerra. 17:00etik 19:30era.

Izena ematea: maiatzaren 9tik 20ra kultur etxean.

Maiatzak 28, larunbata

Intxurre futbol taldearen denboraldi bukaerako festa.

**Maiatzak 29, igandea**

Languerre Eguna

Ekainak 3, ostirala

Eskolako festa.

Ekainak 10, ostirala

Sutarri dantza taldearen emanaldia.

22:00etan Elorri pilotalekuan.

**Ekainak 16, osteguna**

Irakurle taldea: 'Begoñaren itzalpean'.

Jose Inazio Basterretxea.

18:00etan liburutegian.



Inaxio Begiristainen jaiotzaren mendeurrena

Ospakizun horren inguruko ekitaldien prestaketak ere aurrera darrai, bere obra baten antzeppen eta guzti

2022an Inaxio Begiristainen jaiotzaren mendeurrena ospatzen da. Hain data seinalatua ospatze aldera, Kultura batzordearen ekimenez mendeurrenako ospakizun ekitaldiak antolatzeko lan talde bat osatu da eta hauek ere ari dira gauzak aurreratzen. Egin diren bileretan ideia ezberdinak landu eta aztertu dira.

Horien artean, Inaxio Begiristainen obra baten antzeppenarena dago. Lan talde horrek jada jaso du antzeppenean parte hartzeko prest dauden hainbat herritarren baiezkoa eta beste hainbaten erantzunaren zain dago. Bertan parte hartzea gustatuko litzaiokeen herritarren bat balego, kultur etxean eskatu dezake informazioa.



Festak uztailaren 14tik 17ra

Alegiako Festa batzordeak jada egin ditu jaiak antolatzeko lehen bilerak eta herritarrei proposamenak egiteko bidea zabaldu zaie

Uztailaren 14tik 17ra. Data horietan egingo dira aurten Alegiako jaiak. Pandemiak bi urtean festak normaltasunez egitea ekidin ostean, batzordea jada hasi da lehen antolaketan bilerak egiten eta beste hainbat gauzaren artean, data zehaztu dute. Eskaintza kulturala normalizatzeko bide horretan urrats garrantzitsua izango da herriko jaiak normaltasunez egin ahal izatea.

Festa batzordeak atek zabalik ditu jaietarako proposamenen edo ekarpenen bat duten herritarrentzat. Egingo diren bileretara gerturatzea eta proposamena bertan aurkeztea da bide horietako bat. Bestela, kultura@alegia.eus helbidera idatzi daiteke, Alegia APP aplikazioko 'Idatzi Udalarri' atala erabili daiteke edo Udal webguneak harremanetarako eskaintzen duen txokoa erabili daiteke.

Datu eta ekintzekin kontzientziarioa helburu

Udalaren jardura ardatz nagusietako bat da ingurumenaren zaintza. Horretarako, ibai garbiketak eta auzo konposta bezalako proiektuak gauzatzen dihardu azken urteetan eta gizartearen kontzientziaziorako bidean, Aralar Institutuko ikasleek Zuhaitz Eguna ospatu zuten iragan otsailean, 40 zuhaitz inguru landatuz

Ibai garbiketako datuak

URZAIN taldeak bederatzi garbiketako saio egin ditu Alegiako eremu ezberdinetan 2021 osoan eta 2022ko hasieran. Horietatik bost Oria ibaierentzatan eta ibilguan izan dira, bi Languarren, bat Txubiritxo errekan eta beste bat herriko natur-inguru batean. Guztira 6085,46 metroko luzera eta 55841 m²ko azalera duen eremu bat garbitu da eta orotara 6283,24 kilo hondakin bildu dira.



2022aren hasieran Oria ibaiko garbiketekin aritu dira Urzainekoak. Ibaian biztanleriaren eraginpean dauden eremu guztiak garbitu dira eta garbiketekin jarraituko da aurrerantzean ere, ibai ertzetan nahiz ibilguko landaredian edo lur azpian harrapatuta zein pilatuta dauden hondakin berri guztiak kenduz. 2022an zehar, bi edo hiru hilabeteetan behin, eremu horien

zaintza eta kontrol lanak egingo dira, bertan agertu daitezkeen zabor sakabanatuak edo pilaketak eragozteko.

Lan horien helburu nagusiak ondokoak dira:

- Kutsadura plastikoek faunari eragindako kalteak murriztea.
- Naturgune hauetan bizi den faunarentzako habitat baldintzak hobetzea.
- Ur esparruetan dauden kutsatzaileen kargak murriztea.
- Naturgune hauetatik itsasora iristen diren hondakinak %90ean murriztea.

Zuhaitz eguna

Otsailaren 23an ospatu zuten Zuhaitz eguna Aralar institutuko DBH 1 mailako 50 bat ikaslek. Languarren 40 zuhaitz inguru landatu ziren, ondoko espezieetakoak: Haritzak, Pagoak, Arteak, Lizarrak, Astigarrak eta Gaztainondoak. Aipatzekoa da, hain justu, aurten Eskola Agenda 2030 programaren barruan "basoak" gaia lantzen ari direla ikasleak. Zuhaitzen landaketan bereziki lagundu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, zuhaixkak emanez eta zuloak eta eremuaren prestaketa lanak eginez. Amaitzeko, zuhaixkak landatu ondoren Alegiako Konpostarekin (auzo konpostean sortzen denarekin) estali ziren zuloak, ongarrri eta babesa emateko.

Auzo konposta

2017an martxan jarri zen proiektu honek, alegiarrek etxean sorturiko hondakin organikoa zuzenean eta herrian



bertan konpostatzea du helburu. Horretarako 3 gune daude herrian. Bata Kalebeherako parkearen albo batean, bestea Kalegorako azken etxebizitzaren parean eta azkena Larraitz auzoan, 4 eta 8 zenbakien artean. Gune bakoitzean etxola moduko egitura bat dago eta bertan botatzen da hondakin organikoa. Azpimarratzekoa da etxolen erabilerak ez duela inolako mugarik ordutegiaren aldetik; hau da, edozein momentutan bota daiteke hondakin organikoa etxolara, atez-atekoaren ordutegiarekin bateraezintasunen bat duten herritarrentzat aukera aproposa da, beraz. Atez-atekoarekin ordea baditu zenbait ezberdintasun aukera honek. Nagusia zera da, auzo konposteko etxolara hondakin organikoa bere horretan bota behar da, inolako poltsarik gabe. Bestetik, hondakin organikoa bota ondoren, gainetik materia egituratzailea (fun-

Txintxarriak Martxanek aurrera darrai

Osasun egoerak hobera egin duen honetan, aurten oraindik irteeretan parte hartzera animatu ez diren adinekoei bertaratzeko deia egiten zaie antolakuntzatik



tzen inausketen hondar xehekuak) deritzona bota behar da eta etxolan bertan aurkitzen da materia egituratzaile hau. Prozesu natural baten ondorioz eta Udal langileek egiten dituzten jarraipen eta aireztatze lanen bidez, hondakin organiko hau 6-9 hilabeteren buruan konposta bilakatzen da etxolan bertan. Honek abantaila asko eskaintzen ditu, besteak beste hondakinen bilketa eta garraioa saihesten da eta honek CO₂ emisioak murriztea ahalbidetzen du. Gaur egun Alegiako 35 familiek parte hartzen dute proiektu honetan, denera 94 bat herritarrek. Etxoletan tokia dago oraindik eta parte hartzeko deia luzatzen dugu. Interesa duten herritarrek udal txean eman behar dute izena eta informazio gehiagorako bertara deitu dezakete.



Urriaren 14an ekin zitzaion Txintxarriak Martxan ekimenaren 2021-2022 ikasturteari. Adinekoak ariketa fisikoa egitera bultzatzea eta elkarren arteko harremanak sustatzea helburu duen ekimenak ostegunero du hitzordua 11:00etan plazan. Adin talde ezberdinei egokituriko ibilaldiak egiten dira herriaren inguruan, herriko elkarte eta eragile ezberdinen laguntzarekin.

2020-2021 denboraldia bertan behera geratu zen osasun egoerak hala baldintzatuta. Ikasturte berriari begira, Alegiako osasun zentroarekin adostutako protokoloa jarri zen martxan, une oro parte hartzaileen segurtasunari lehentasuna emanez. Pandemiak eraginda edo, ikasturte honetan aurrekoetan baino parte hartzaile gutxiago ari da irteeretara hurbiltzen eta antolakuntzatik jendea parte hartzera animatu nahi da.

Osasun egoerak nabarmen egin du hobera azkenaldian eta beharrezkoak diren segurtasun neurriak hartzen jarraituko den arren, aire libreko jarduera bat izaki oso zaila da kutsatzeak gertatzea. Horrekin batera, udaberrian ere sartu gara eta hemendik aurrera eguraldiak ere lagunduko du osteguneroko ibilaldi horietan.

Beraz, adineko herritarrek Txintxarriak Martxan ekimenarekin bat egitera animatu nahi dira. Orain arte parte hartu ez dutenek ere izango dute horretarako aukera. Ostegun batean 11:00etarako plazara agertu eta bertan eman ahal izango da izena.



Aste Morea martxoaren 8aren bueltan



Eztanda talde feministak antolatuta kontzentrazio bat, pintxo pote morea eta 'Raketistak' dokumentala eskaini dira martxoan zehar

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Azken urteetan eguneko aldarrikapenekin bat egin eta hainbat ekintza egin izan dira Alegian. Duela gutxi arte Udalak antolatzen zituen ekintza horiek baina Eztanda talde feminista sortu zenetik, beraien ekimenez antolatzen dira ekitaldiak eta Udalak bat egiten du berauekin.

Bada, 2022an martxoaren 8tik haratago eraman nahi izan du Emakumeen Nazioarteko Eguneko aldarrikapena Eztandak. Ohiko kontzentrazioa eta ondorengo balizko ekitaldiren batera mugatu ordez, Aste Morea antolatu zuten martxoaren 5etik 15era. Guztira lau ekintzez osaturiko egitaraua antolatu zen. Dena den, eguraldiak ez zuen behar beste lagundu eta horietako bat bertan behera geratu zen. Martxoaren 5ean Mareara Mendi Martxa Morea egiteko asmoa zuten Alegiako Mendi Asanbladarekin elkarlanean baina ezin izan zen egin.

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna, kontzentrazio bat egin zen plazan. Herritar ugari hartu zuten parte 'Bakarrik azkarrago,



elkarrekin urrunago' lemapean eginko mobilizazioan. Martxoaren 10ean berriz, Pintxo Pote Morea egin zen. Zerbait morea jantzi eta Alegian ostegunero egiten den pintxo potean

parte hartzeko deia luzatu zieten herritarrei Eztandakoek.

Azken ekintza martxoaren 15eko proiektzioa eta solasaldia izan zen. ETBko 'Itxi Liburuak' saioak emakume raketista profesionalen inguruan egindako dokumentala eskaini zuten eta ondoren herriko palisten testigantzak entzuteko aukera izan zen. Anne Agirrek eta Ainhoa Garmendiak beraien ibilbidea nolakoa izan zen kontatu zuten.

Eztanda taldeak Aste Morearen balorazio gazi-goza egin du. "Ilusioz ekin genion aste moreari. Guztia antolatu ondoren, tamalez, mendi martxa morea alde batera utzi behar izan genuen eguraldia zela eta. Kontzentrazioa jendea etorri zen eta espero bezala joan zen guztia. Pintxopotean aldiz, jendea bazegoen arren, ez ziren ekimenera batu morez jantzita. Dokumentala bereziki interesgarria izan zen, baita ondoren jaso genituen Ainhoa Garmendia eta Anne Agirreraren testigantzak ere. Gure etsipenerako ordea, oso jende gutxi gerturatu zen eta konturatu gara jendea errazago gerturatu dela kaleko ekintza eta ekitaldietara, intzentionalki joan behar den tokietara baino."